

2006

Berdintasunaren aldeko

EMAKUNDE Saria

>> Berdintasunaren aldeko 2006ko Emakunde Sariaren bidez, ezagutza egin nahi zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoen, publiko nahiz pribatuen jardunari, eta jardun hori jendaurrean nabarmendu nahi da; emakumeen lana aintzat hartzeko eta emakumeei boterean dagokien lekua itzultzeko eginkizunetan nabarmendu direnei eman nahi zaie saria, eginkizun horiek gauzatzeko jardun, ekintza, lan edo proiektuen bidez alderdi garrantzitsuren batzuetan hobekuntzak ekarri dituztenei, alegia; edo, beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen laguntzeko eginkizunean nabarmendu direnei; edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnei.

aurrera doan **herria**

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

www.emakunde.es

2006

Berdintasunaren aldeko

EMAKUNDE Saria

- >> Sarituari ezagutza egingo zaio jendaurrean, eta ohorezko saria eta diru kopuru bat emango zaizkio, 13.794 euroko diru-kopuru gordina. Dagokion zerga-atxikipena ezarriko zaio kopuru horri.
- >> Saria jasotzeko hautagai direnek berek edo beste normahik aurkez ditzake hautagaiak, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoan bizi badira, edo bertan egoitza edo ordezkartzaren bat badute.
- >> Lan edo proiekturen bat bada hautagaitzat aurkezten dena, deialdia argitaratu aurreko bi urteetan burutua beharko du izan.
- >> Hautagaiak aurkezteko epea 2006ko azaroaren 30ean amaituko da.
- >> Hautagaiak aurkeztean, hautagai horiek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egin duten ekarpena egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da, bai eta egiaztapen horri dagokion agiriak ere. Horiek guztiak Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan aurkeztu beharko dira, (Manuel Iradier kalea, 36 zk., 01005 Gasteiz), edo posta ziurtatuaren bidez edo administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako moduetako edozeinen bidez igorri helbide horretara bertara.
- >> Aurreko paragrafo horretan aipatutako agiri horiekin batera, adierazpen bat ekarri beharko da, zin eginez ez zaiola hautagaiari sekula administrazio-zuzenbidearen arloko zigorrik eta zigor-zuzenbidearen arloko zigorrik ezarri sexua dela-eta bazterkeriarik eragin izanagatik, eta ez zaiola, orobat, legezko debekurik ezarri diru-laguntza publikoak eskuratzeko.
- >> Beharrezkoa dela uste izanez gero, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak informazio gehiago eskatu ahal izango du.
- >> Saria nori esleitu ebazteko, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluko kideek osatutako epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:
 - a) Hautagaiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean egindako ibilbidea.
 - b) Emakumeen lana aintzat hartzearen eta emakumeei boterean dagokien lekua itzultzearen, edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzearen egindako jardun, ekintza, lan, eta proiektuek berez duten garrantzia.
 - c) Jardun, ekintza, lan edo proiektu horiek edo proposatutako pertsona horren ibilbideak gizartean duten oihartzuna eta eragina.
- >> Emakunde Sarirako hautagaia aurkezteak berarekin dakar sariaren oinarriak onartzea.

Informazio gehiago irailaren 20ko EHAOean edota www.emakunde.com web gunean

aurrera doan **herria**

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



www.emakunde.es